



EBAZPENA, 2026ko OTSAILAREN 26koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN DEN 2026ko URTARRILAREN 24ko EBAZPENA, IRAKASLE ELKARTUEN KONTRATUAK ESLEITZEKO LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEKOA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa. - 2026ko otsailaren 24ko ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean arduraldi partzialeko irakasle elkartuen kontratuak esleitzeko. Aipatutako deialdian, ondoren aipatzen diren unibertsitate barruko kodeak dituzten plazak agertzen dira:

- PAD3L1-D00078-17 (deialdiko zenbakia: 139), Erizaintza jakintza arlokoa.
- PAD3L1-D00078-18 (deialdiko zenbakia: 166), Erizaintza jakintza arlokoa.

Bigarrena. - Ikusi da akatsak daudela irizpide espezifikoaren atalean.

- AUP3L1-D00078-17 plazan adierazi behar zen EZKERRALDEA-ENKARTERRI ESI-GURUTZETA- ERIZAINTZAn bete beharreko laguntza plaza dela.
- AUP3L1-D00078-18 plazan adierazi behar zen BILBAO-BASURTO ESI – ERIZAINTZAn bete beharreko laguntza plaza dela. Horrez gain, azken plaza horretan egin beharreko jardueren atalean Practicuma V zegoen adierazita eta Practicuma da izatez.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. - Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, ebazpen hau emateko, hala xedatzen baitu Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakiak, gobernu taldeko kideen ordezkapenei buruzkoak.

Bigarrena. - 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honako hau dio 109.2 artikuluan: ***“Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oher materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.”***

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. - Adieraztea AUP3L1-D00078-17 plaza EZKERRALDEA-ENKARTERRI ESI-GURUTZETA- ERIZAINTZAn bete beharreko laguntza plaza dela

Bigarrena. - - Adieraztea AUP3L1-D00078-18 plaza BILBAO-BASURTO ESI – ERIZAIN TZAn bete beharreko laguntza plaza dela.

Hirugarrena. - AUP3L1-D00078-18 barne kodedun plazan, jardueretan, "Practicuma V" ordeztu "Practicuma" adieraztea.

ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsua jar dakioke UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.

Leioa, 2026ko otsailaren 26

Iz.: Efren Areskurrinaga Mirandona
IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEA